

**ZIENTZIA, DARWINISMOA, ILUSTRAZIOA, GIZAKIA**

Nire oinarritzko hausnarketen/eskaintzen bilduma aurkezteko idazten ditut lerro hauek. Bilduma honen abiapuntua, bidea eta garapena gizakiaren ulerkeran/definizioan datza.

Gizadian egin izan den filosofia guztia bere garapen betera heltzen da gizakia bere ahalmen/potentzia guztien jaun, nagusi, buru aurkitzean. Nahi beste aztergai zehatz geratuko da argitzeke, baina gizakiaren hezurdura azalduko dugu.

Gure ibilaldiari hasiera emateko, behetik abiatu behar gara: gizakiaren zentzuen gaitasuna aztertzetik.

**I.- Zentzumenak. Zientzia**

Jakina da zientziagintzaren azter eremuko datu zientifikoak izaki/fenomenoen izaera/bilakaerari buruzko zehaztasunak direla.

Datu zientifikoak jasotzeko daukagun azter/ahalmen/tresna bakarra behaketa da.

Behaketen bitartez jasotzen ditugun datu zientifikoei buruz gure adimenez dagigun hausnarketen eraketa/azalpena da zientzia. Zientziagintzaren bihotzean behaketa dago. Eta zientziaren aurrera pausoa, aurreko behaketak behaketa berrien bitartez gehiago argitzean datza. Zer esan nahi du *behaketa* hitzak?

Honela erantzuten digu Elhuyar hiztegiak:

“behaketa. *iz.* 1. Behatzea (ekintza eta ondorioa). 2. Izaikiei, fenomeno eta gertaerei begira jarrita, haiei buruzko datuak jasotzea, neurketak, azterketak etab. egiteko xedez.”

Eta zer esan nahi du *begiratu* hitzak? Berriz Elhuyar hiztegiak:

begira(tu)- *du ad.* 1. (pertsonekin, eta bestela ere askotan, dio ad.) Zerbait edo norbaitengana begiak zuzendu.

Beraz behaketaren ardatza, muina begia da, ikusmena da.

Ondorioz, behaketaren, ikusmenaren (zentzumenen) balio zientifikoa oinarritu/frogatu gabe, ezin gara zientziagintzan benetan hasi ere.

Eta berehala konprobatuko dugu ez dagoela ikusmenaren balioa zientziaz frogatzerik. Ezina delako ikusmenaren balioa frogatzea ikusmena erabili gabe. Froga-gai dena froga-tresnatzat erabili gabe.

Baina zuk, eta nik, eta zientzialari orok dakigu ikusi egiten dugula. Gizaki garenez -zientzialari gisa jardun aurretik- dakigu ikusi egiten dugula. Zientziaren sailean ari dena –zientzialaria- gizakiak gizaki gisa dakiena sinetsiz ari da. Oinarritz, abiapuntuz, gizaki denez ikusi egiten duela onartzen du. Ikusmenak, behaketak (eta berdin beste zentzumenek), ez du zientziaren beste inongo babesik, gizakiak ematen dion bere esperientziaren baiespena baizik.

“Ez dago ikusmenaren balioa zientziaz frogatzerik” esan dugu. Popper-ek erakutsitako ildoan jardunez, baiespen hori zeharo ezeztagarria dela azaltzen da. Ba delakoaren froga aurkitu eta erakustea besterik ez da behar gure baiespen hori ezeztatzeko. Ez dagoenez behaketaren balioa frogatuko duen azalpen zientifikoa inola eskaintzerik, gure baiespen hori zientifikoa da.

Zientzia, ondorioz, sinestetik bizi dela onartu behar da. Zientzia (zientzialariak) ohituta dago gizakiari goitik behera begiratzen. Ikasi egin behar du gizakiari behetik gorantz begiratzen. Zientzia gizakiarena da, baina gizakia (izaki maitari/hautaria) ez da zientziarena, askoz goragoko mailan dago.

Horregatik penagarria eta negargarria da (zientziaren uka-pen biribila) zientziak frogatzen eta babesten ez duena baliorik gabea dela esatea; zientziak erakutsiko duela den dena, giza-kiaren izaera bera ere. Horrela dihardutenek –hainbestek, zori-tarrez- zientziaren ondo baino hobeto merezitako ospea eta eskerrona galarazten eta zapaltzen dute.

Oinarria, babesa, argia, goitasuna, gizakiagan dago, zentzu-menena eta men guztien jaun eta iturburu den giza gogoan. Zientzialariak zientzialari huts gisa ezin du pauso zientifiko bakar bat eman, ez badio kasu egiten gizakiak gizaki huts denez dakienari, esaten dionari. Gizakiaren ikusmena da zientzialariaren abiapuntu eta babes bakarra. Beste era batera esanda, zientzialariak zientzialari huts denez eskainia ez da objektiboa, ez delako behaketa frogatutakoen bitartez oinarritua. Baina *gizaki* zientzialariak eskainia zeharo objektiboa da, eskaintzen duena *gizakiaren* subjektibitatean tinko oinarrituta dagoelako.

Zientziagintza jardun zoragarria eta goragarria da. Gizakiaren eta gizadiaren aldekoa da. Eta onura guztien kalkuluen gainetik, zientzia egiaren bilaketa da. Egia maitatzea, egiaren ezagutari lan egitea, egia hautatuz zerbaiten jakintza berria geureganatzea gizadi osoari eskainiz. Ni neu zeregin horretan –zehazki ekonomiaren sailean<sup>1</sup> lan eta urte asko emana naize-nez ondo dakit hori.

## II.- Eboluzioaz berriz

‘Behaketa’ den ekintza argituz gero, eboluzioaren arazoari heldu behar diogu; zientziaren eremutik irten gabe, gizaki zientzialarien zientzia zeharo objektiboa dela onartuz. Aurten bereziki gogoratzen ari garen Darwinismoak gizakiaren definizio edo mugatzea bai dakar berarengan.

Arazo honetan bi alderdi zeharo bereizi beharrekoak daude. Bat) Eboluzioa. Bi) Eboluzioaren zergatia; zehazki darwinismoa.

<sup>1</sup> Nire oinarritzko aurkikuntzak makroekonomiako arloan hauek dira: Keynesen  $= \pm I_n = \pm S_1$  ekuazioaren ezeztapena; eta  $\pm S_1 = 0$ ,  $\pm B = \pm I_n$  ekuazioen baieztapena.

Bat) Eboluzioa, behaketa egokiz denborari lotuta jaso ditrugun datu zehatz katearen irakurketa zientifiko zuzena da, azalpen egokia. Hor ez dago zientziatik kanpoko ezer, behaketetz frogatu gabeko ezer.

Bi) Darwinismoa (edo neodarwinismoa), aldiz, datu horien (eboluzioaren) zergatiari ukapen ideologiko bat itsastea da.

Zientziaren barruan dihardugunean zientziaren eremutik kanpo dauden bestelako iritziei kaso egin gabe jardun behar dugu. Lehenbizi hauteman behar duguna hau da: darwinismoa ez dela, inola, baiespen zientifiko bat, ezespren hutsa baizik. Zera ukatzen du: kosmosaren eboluzioan inolako kodigo genetikorik izan denik.

Darwinismoari begira zientziaren barruan jartzeko, eboluzioaren katearen bi alderdiko mailei begiratu behar diegu: lehenengo maila big-bang unean sortua da; eta azken maila, gizakiaren sortzaile den zelula bakarra, giza zigotoa. Maila bi hauen arteko bilakaera da hausnartu beharrezko gertaera. Edozein mailatxo batetik hurrengora eskaini ohi diren (azalaraztea nahi izaten diren) eboluzioaren aurkespenek ez dute ezer erakusten galdera nagusiari erantzun aurretik.

Zer da giza zigotoa, zientzialarien esanetan? Zelula bakar batean datzan dozenaka miloien miloien zelulaz osatutako gizaki holistikoa kode-programa eta egin ahalmen genetikoa, triloiren ( $10^{18}$ ) baten sinapsiz elkarri konektatutakoak; eta era harrigarrian giza zigoto bersortzaile den gizakia.

Ez dago mundu osoan benetako matematiko bakar bat zera baietsiko duenik: posible dela zoriz sortutako mutazioen ondorioz eta norabiderik gabeko hautespen naturalaren (edozein era eta moduko selekzioen) eraginez, bigbang unean sortu/azaldu zen hura giza zigoto zelula bilaka daitekeela. 'Mitxeletaren' teoriaren irudiz esateko, kosmos guztian eta hasieratik gaur arte izan diren 'mitxeleta' guztien egaldia sorrazati dutela, besterik gabe, giza zigotoa. Hori baiestea aberrazio matematiko-zientifiko itzela da.

Zer da disparate handiagoa? Giza zigotoa (zelula bakarra) fetu, burudun, begidun, gizaki holistiko zorisko mutazioen eta hautespen naturalen eraginez (darwinismoaren esanen erara) bilaka dela baiestea, inolako kode genetikoren baten eraginik gabe; ala big-bang unean azaldu/sortu zen zerbait hura giza zigoto bilakatu dela inolako kode genetikoren eraginik gabe?

Gaur zientziaren barruan dagoen lan hipotesis zientifiko bakarra kodearena da. Zigoto kosmikoarena. Kodeak hor daude gure zientziaren bistan. Giza zigotoak, adibidez, giza buruaren kodea dauka beragan. Eta giza buruaren kodeak, ikusmenaren/entzumenaren kodigoa dauka beragan. Eta ikusmenaren/entzumenaren kodigoak begiaren/belarriaren kodea dauka beragan, beste gizaki osoko atal eta zelula bakoi-tzarekin holistikoki elkartuta. Gure begien aurrean daude naturan kode kate luzeek ernaldutako kodeak.

Darwinismoa zientziatik kanpo egiten diren baiespenen kontra aritzean dirau. Ez dago zutik berak eskaintzen dituen behaketa (bat bera ere ez) eta hausnarketa zientifikoengatik.

Gaur darwinismoa ideologia hutsala da, zientzien eta matematikoen aurkakoa. Zientziaren barruan zigoto kosmikoaren (big bang leherketaren misterioa) sorrera miretsi orde, zientziatik kanpoko beste iritzi batzuek gaitzetsiz, joera ideologiko gregarioetara jaustea. Darwinismoaren orduak bukatzeaz datoz.

Pena ematen du horrenbeste taldekoi/gregario eta gregarioen gregario darwinismoaren betarurreko ideologikoak jantzi, “zientzia” eskapularioa lepotik eseki eta giza pentsamenduaren historia, filosofia, etika, zientzia guztiak kontatzen entzutea; eboluzioaren aztarnarik txikiena aurkitu orduko darwinismoaren konfirmaziotzak jasoz.

### **III.- Giza ahalmenak. Adimena.**

Giza gogoia ezagutaria da. Adimena, nahimena, oroimena, giza gogo ezagutariaren potentziak dira. Maitagogoaren esane-

ra diharduten ahalmenak. Maitamenak berez jasotzen ditu ederraren, egiaren, ongiaren berriak, adimena, nahimena, oroimena erabili gabe ere. Ikusi edo entzun hutsez, inongo aditzerik, nahirik, oroitzarik gabe, gizakiak zuzen zuzen jasotzen du pintura edo sonata baten ederra, ekintza baten ongia (gizakiak gizaki itsua gidatzean), egia baten argia (adibidez ilargia dabilela, beste behaketen bitartez beti osatze jarraituko duen egia).

Gizakiaren garatzea maitariago bilakatzea da. Gizakiaren ahalmen guztiak dira onuragarriak, adimena ere bai. Oso. Adimena garatzea oso ona da, gizakiarentzat giza men oro garatzea oso garrantzitsua delako.

Baina gizakiaren ospe eta garatze bete ez da adimentsu izatea, adimentsuago bilakatzea. Ahalmen guztien buru, jaun, erabiltari, gidari gizakia denez, adimena garatzea ona eta oso ona zaio, baldin gizaki maitari-hautaria maitariago izaten/garaten laguntzen badio. Aldiz, gizakiaren ahalmen bat den adimen argitsu/argitua gizakiaren gainean buru eta gidari jarritz gero, gizakia azpiratu egiten du. Gizakia adimenaren menpeko egiten du, adimen harro okertuak gizakia makurtzen/moteltzen dihardu.

#### **IV.- Gizakiari buruzko filosofiaren bilakaera**

Gizakiaren muin muinari buruzko arazo hau argitu ezinakin antzinako filosofiatik gaur arte dirau, gizakia zelakoa izan eta zelan bizi argitu nahian baina ezinean.

Lehenbizi aholku zuzena zenari (“γνοσε σεαυτον”) -berehala eman zitzaion adierazpen okerra, murrizkorra. Eginiko galdera, zuzena, hau izan zen: “*egin zeu zeure ezagu-gai*”. Beste honi jarraitu zitzaion sarri, okerreko bidean: *izan zaitze ezagule*. Irakurketa oker hau beste era batera (kantiarrera) adierazteko: “*piztu/erabili zeure adimena*”.

Antzinako aholku ospetsuak gogoia bera jarri nahi zuen gogoaren ezagu/aztergai. Platonek begiratu zion nolabait –gogozko begirada egin zion– gogoari, gizakia berari, adimena aditzen hasi baino lehen gizakiagan dagoen edukiaren bila.

“*Animal rationale*” izan zen gero, gizaldi askotan, gizakia-  
ren definizio egokitzat onartua pentsalari gehienen artean. Eta  
filosofo batzuen iritzietan gizakion teoriatzko berdintasuna  
onartua izan bazen ere (estoikoak), haien iritzia ere gizakia  
adimendun izatearen kate teorikoan oinarrituta eskaini ziren.  
Adjektiboan (*rationale*), ez substantiboan (*gizaki*).

Descartes ospetsuaren hausnarketetan ere adimena da erakus-  
lea. Bere abiapuntu filosofikoan bertan gizakiaren izaera adime-  
nez (*rationale*) frogatu beharra egin zuen. Ezin zen esan “hau  
egia da”, baiespena arrazoiz babestua eta adierazia ez bazegoen.  
*Je pense, donc je suis*’ izan zen bere filosofiaren harroina.

Ondoren, Kantek eta argiztatuek ildo berdinean jarraituz,  
adimenaren erabilera egin nahi izan zuten gizatasunaren eredu,  
neurri. Eta gizaki apalaz inoiz irainez idaztera ere iritsi ziren.  
Baina horrela aritzea oker jardutea izan zen eta okerbide negar-  
garrietara eraman zuten beren garaiko gizartearen pentsaera,  
gaur ere dirauten okerbideetara. ‘*Erklärung*’, ‘*Enlightment*’ eta  
‘*Lumières*’ kontzeptuak beste kontzeptu baten degradazioa dira:  
gizakia ‘*animal rationale*’ definitzearen azken hondamena. Gi-  
zakia adimenaren menpeko egitearen azken ondorioa. Gizaki  
maitari-hautaria adimena eta bere ahalmen guztiak maitajardu-  
neko ibilbideetara zuzenduta dauzkala erakutsi ordez, gizakia  
adimenaren esanera azpiratu. Hitz batez, gizakiaren –gizaki  
huts denaren– duintasuna zapuztu egin zuten.

Ondorioz, hamaika adimentsu azaldu izan da bakoitzak  
aurkitutako egiak gizadia konponduko duela iragarri duena.  
Gizartea eurok eskainitako argien arabera eratu eta gizakiak  
bete betean garatu eta zoriontsu egingo dutenak: Adibidetzat,  
eugenesia, enpirismoa, arrazismoa, komunismoa, nazismoa, di-  
ru liberalismoa. Kantek onartu eta bidea eman zien ‘*sapere au-  
de*’ ikurpean eginiko teoria aberrantei.

Filosofo, jakintsu, iluminatu horien argiek atarramentu ne-  
gargarrietara bideratu izan dute gizadia. Gizaki arruntek baino  
askoz buru ilunagoa, desbideratuagoa erakutsi dute, gizadia-  
rentzat kaltegarrienak. Adimenaren jopu aurkeztu dira, beren

arrazoiketaren esklabo bihurtuta. Merezi du hemen Kanten *Aufklärung* ospetsua gogora ekartzea.

“ARGIKETA (*Aukklärung*) gizakia bere kulpaz daroan menpeko egoeratik ateratzea da. Mendekotasuna zera da: besteren baten laguntzarik gabe norberaren adimenaz jardun ezina.

Alferkeria eta epeltasuna dira zergatiak horren gizatalde handiak beren bizitzan adin-txikiko irautea nahiago izateko, naturak kanpoko gidaritzatik aske (naturaz adin-nagusiko) eginak diren arren. ... Hain da eroso adin-txikiko izatea. Liburu bat edukirik niretzat adimena daukana, gogo-zaindaria niretzat kontzientzia duena, sendagilea nire dieta aukeratuko didana, ... ez dut gehiago ni neu saiatu beharrik. Ez dut pentsatzen jardun beharrik, baldin ordaindu ahal badut. ... gizakirik gehienak (andrazkoen talde osoa barru)...” Immanuel Kant. “Beantwortung der Frage: *Was ist Aufklärung.*”, 1, 2.

Gizaki xumeen jardunaren benetako kontaketa zuzena zeharo desberdina da. Gizaki xume maitari-hautariak maitajardunean ibiltzeko era guztietako iritzi eta aholkuak eskatzen eta jasotzen ditu. Baina gero bere adimenaren eta besteen adimenen argiak eta esanak bere hautamenez aukeratu, -onartu ala saihestu- eta bere maitajardun zehatzaren ibilbidera egokitzen ditu. Den dena maitagogo den giza jardunera lotuko du, adimenaren emaitzak gizakiaren garapenari menperatuz. Zeren egia ez da ‘norberaren *adimenaz* jardun *ezina*’, ‘norberaren *hautamenaz* jardun *abala* baizik’. Egiatzko burubidea ez da ‘*sapere aude*’. Zerbait esatekotan, benetako burubide gizatiarra ‘*diligere sape (intende)*’ da.

Eguneroko zeregin arruntetan bere potentzia eta ahalmen guztiak (adimena barru) gogoaren esaneko erabiliz, bere seme-alabei, bere ilobei maitasunez laguntzen ari den amama zaharra gizakiago ari da, burutsuago da, gorago dabil; bere adimeneko burutazio okerren menpe dabilen edozein jakintsu edo filosofo handi baino. Argiago da giza jardun/arlo gehiengotan adimentsu baina adimenpeko azaltzen zaigun jeniorik han-



diena baino. Amona zahar baten irribarreak eragin on itzela eduki izan duela edo edukiko duela konturatu behar gara gizadi osoaren bilakaeran, bere inguruan sorrarazten duen amai-gabeko irribarre eta maite-arnas kate ongilearen bitartez.

La France jainkotzean *Aufklärung* eta *Les lumières* izan duten eragina nabaria da. Garai hartan sortu zen bidegurutzean Frantziak okerreko bidea aukeratu zuen: gizakiaren bidean aurrera egitea hautatu ordez, gizakiaren adimenaren bidea onetsi zuen. Gizakia eta gizakiarenak adimenaren argien menpeko eginez eraiki dute *La France*.

Azken gizaldietan eztabaida-borrokak ikusten ditut Frantziako biztanleen artean. Batzutan lafrantziar (argien esaneko/menpeko frantziar) gisa ari dira; bestetan frantziar (gizaki bere ahalmen guztien buru) eran. Borrokak (biziak askotan) frantziarrek irabazten dizkiete lafrantziarrei, baina berehala lafrantziarrak jaikitzen dira jaun eta gidari.

Adibidetzat, gizakiaren eskubidearen arazoa. Eskubideak Estatuaren eraso-zapalketen kontrako borrokan lortu zuten frantziarrek. Eskubideen muina ez dira ‘gizakien eskubideak’, ez; ‘Estatuaren eskubide ezak’ baizik. Baina berehala lafrantziarrek La France Estatu egin zuten ‘eskubide ez’ horien jabe, babesle, banatzaile, jainkotxo –*eskubide baikor* itxuratuta, jakina-, gizaki frantziarren gainetik. Gizakiaren zereginak estali eta itzali egin ditu, beretzat eskuratu duen justizia (eskubide/eskabideen banaketa) gizartearen ardura ia bakar eginez.

Frantzia krisi sakonean murgilduta dago, egiteke geratzen zaion La France-tik frantziarrerako (gizakirako) trantsizioa burutu arte, konstituzio bertatik hasiz.

## V.- Gizakia, maitagogoia

Guk diogu gizakia *soinezko maitagogoia* dela. Ni naizen izakia gizaki egiten nauena gogoia dela. Eta gogoia bere izate mui-nean maitari dela. Beraz, ni naizen izakia gizaki egiten nauena *maitagogoia* dela.

Maitari izateak beste bi alderdi dauzkala beregan: ezagutari eta hautari izatea. Gizakiak, maitari izanik, maitagai bila dihardu beti. Ezagutari ari da. Bere barrengo iturri-sena maitatzea denez, maitagai bila ari da. Eta on, eder, egia zaizkion hautari.

Eta hautari izanik, bere ahalmen guztiak darabiltza menpeko, bitarteko, pausu bakoitza eta ekintza bakoitza aukeratzean inora okertu gabe beti maitabidean jardutea hautatzeko. Gora-go esana berraipatuko dut hemen: gizakiari dagokiona ez da *'sapere aude'*, *'diligere sape (intende)'* baizik.

Jakin mina ez digu gizarteak ematen. Jaki mina guk geuk umetatik dakargun ezagu-sena da. Ikusi zenbat eta zelako galderak egiten dituen haurtxoak bere garaian, albokoak asperrarazi arte askotan. Ez besteek zirikatuta, bere barrendik dator-kion ezagutu/jakin nahiak behartuta baizik

Gizakiak beretzat maitagai aurkitzen duena, on, egia, edertzat hautatzen du. Gauzak eta fenomenoak objektoak/objektiboak dira. Ez dira eder, egia, on, subjektu maitariagan ez bada. Oinaztua, da; ederra izango da, baldin gizakiak eder ikusten/entzuten badu. Ilargia dabil; egia da (beti egia zatia), baldin gizakiak dabilela ezagutzen badu. Gizaki hau itsu bat gidatzen ageri da. Ekintza ona izango da, baldin maitatuz ari dela jasotzen badu.

'Hau egia da', 'hau ederra da', 'hau ona da' esaten duenak bi gauza baiesten ditu: 1) 'Nik ezagun dudan hau hautatzen dut'; eta 2) 'Nik hau maite dut'.

Beraz, kosmosean ezagugai dauden objektuak –izakiak, fenomenoak- on, eder egia bihurtzen dira baldin eta non gizakiak –maitari/hautari/ezagutariak- ezagutzen baditu/dituenean. Animalientzat ez dago onik, egiarik, ederrik.

---

Hau da nire giza hausnarketa nagusien bilduma.

*Jenaro Garate*